

ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTEN PERTSONENTZAT ERAZTUN BERDEAREN IRISGARRITASUNA HOBETZEA

“MEJORANDO VITORIA-GASTEIZ HOBETUZ” PROGRAMA



NOR GARA

- ▶ Ezgaitasun fisikoren bat izan eta EGINAREN EGINEZ elkartean bildutako pertsonak gara. Aniztasun funtzionala duten pertsonen aukera-berdintasuna lortzea eta inor ez diskriminaturik geratzea da gure helburua.
- ▶ Ezgaitasuna duten pertsonak eguneroko bizitzako jarduera guztietan eta modu normalizatuan kontuan hartzea eta barne-biltzea aldarrikatzen dugu.
- ▶ Berdintasunaren aldeko aurrerapausoak aldarrikatzen ditugu, eta Administrazioarekin elkarlanean dihardugu zeregin horretan. Erakundeak HERRI ONURA izaera aitortua du (280/1996 Dekretua, abenduaren 3koa).

GURE PROPOSAMENAREN IZENBURUA

- ▶ **Aniztasun funtzionala duten pertsonentzat eraztun berdearen irisgarritasuna hobetzea.**

ZERTAN DATZA?

- ▶ Scooter elektrikoak erostea da asmoa, mugikortasunerako zailtasunak dituzten pertsonak alokatu ahal izateko, eta, horrez gain, Eraztun Berdearen ibilbidean bankuak jartzea.

ZERGATIK DA GARRANTZITSUA?

- ▶ Irisgarritasuna hobetzen duelako, eta aniztasun funtzionala duten pertsoneri ingurune naturaletara iristeko aukera ematen dielako.
- ▶ Ezgaitasuna duten pertsonen aukera-berdintasuna bermatzen duelako.
- ▶ Biztanleen aniztasuna agerian uzten duelako, eta hiritar guztiek aisialdiaz eta espazio berdez gozatzeko duten eskubidea bermatzen duelako, haien gaitasun fisikoa edozein dela ere.
- ▶ Eraztun Berdearen altzariak osatzeko modua ematen duelako eta bisitatzeko beste aukera batzuk eskaintzen dituelako.

NORENTZAT DA ONURAGARRI?

- ▶ Maila guztietako aniztasun funtzionala duten pertsonentzat; egoeraren arabera edozein ezgaitasun duten pertsonentzat.
- ▶ Batetik bestera joateko edo ibiltzeko zailtasunak dituzten pertsona guztientzat.
- ▶ Hiriarentzat, turismo iraunkorreko jomuga den aldetik.